

ta Elissalde eta Ormaetxea, Oleaga, ta Belaustegi-
goitia urgazleak. Otoitzez asi da.

1.º Iztegiko lanetan jardun du Euskaltzaindiak.

2.º Izendegi berriaren lanak bakoitzak egin lezaz-
kike ta gero Euskaltzaindiari agertu. Oraingoz beni-
pein Euskaltzaindiak ezin ager lezake bere gauza
bezela.

3.º Azkue jaunak bere lan bat irakurri digu ta
beste idazki batzuen berri eman digu zadorlariak.

Ta beste gairik izan ez da, otoitzez amaitu da
batzaraldia.

Donostian, Eusko-lkaskuntzaren gela nagusian, 1932'ko Azilaren 17'an.

Batzar ontan euskaltzain jaun abek bildu dira :
Azkue maipuru, Olabide, Intzagarai, Altube, Intza,
Lakonbe eta urgazletatik Ormaetxea. Otoitz egin da.

1.º Izendegitzaz berriro itz egin da. Arlo ontan
bakoitzak lan egin beza, gerora zerbait argitaratu edo
erabakitzeke.

2.º Ormaetxea jaunak Iztegiaren aurreitz edo
prologoa irakurri digu, ta ontzat eman da Altube
jaunaren oarpide batzuek ezarrita gero.

3.º Aita Iraizoz-ek Leizañagaren *Bibliatik* berezi-
tako itz batzuek, Aita Intzak irakurri dizkigu.

4.º Izendegi-lan bat asi ta idatzia baduela esan
digu Ormaetxea jaunak ta zerbaitetan berituta gure
Euskera-n, bertatik argitaratzea, Euskaltzaindiak on
deritza.

5.º Aita Intzak berak bildutako itz batzuek irakurri

dizkigu; ta Iraizoz-en beste batzuek Arizmendi-ren *Ama Birjinaren ofizio*-tik artuak.

Ta beste gai batzuek bigaramonerako utzirik otoitzez amaitu degu.

Donostian, Eusko-Ikaskuntzaren gela nagusian, 1932'ko Azilaren 18'an.

Euskaltzain jaun auek bildu dira : Azkue maipuru, Olabide, Intzagarai, Altube, Intza, Lakonbe, Elissalde, ta urgazle dan Ormaetxea. Otoitzez asi da.

1.º Elissalde jaunak Azpañengo ikastetxerako done batzuen izenak nai ditu ta eman zaizkio.

2.º Aita Intzak beste euskal-itx xerenda dakar ta irakurri digu.

3.º Azkue jaunak ere irakurri digu: *Curiosidades de un manuscrito de Añibarro*.

4.º Datoñen urteko *Schuchard*-sarirako gai beñi bat aukeratu da : *Palabras latinas euskerizadas sin intermedio de los romances, incluso los nombres toponímicos y onomásticos*. Lanak aurkeztatzeko epea, datoñen Azilaren 30'an bukatuko da.

Ta beste gairik izan ez da, otoitzez amaitu da batzaraldi au.

Donostian, Eusko-Ikaskuntzaren gela nagusian, Lotazilaren 19-an, 1932-an.

Bildu diran euskaltzain jaunak abek dira : Azkue maipuru, Olabide, Intzagarai, Altube, A. Intza, Lakonbe, Etxegarai eta urgazletatik Ormaetxea. Otoitz egin da.